



Nalu Faria:

“Erresistentzian egon arren, bertatik bizitza antolatzeko beste era batzuk sortzen joan gaitezke”



Amaia Lekunberri Ansola
@amaialekunberri

Emakumeon Mundu Martxaren sorreratik daramazu mugimenduaren baitan. Nolako izan da gaur arteko ibilbidea?

Emakumeon Mundu Martxaren lehen nazioarteko topaketa 1998an izan zen, eta bertan erabaki zen 2000. urtean nazioarteko ekintza bat aurrera eramatea. EMM kanpaina gisa hasi zen, baina hainbat tokitan izan zuen inpaktua tarteko, herrialde askok EMMk modu

Psikologia ogibide duen feminista brasildarra da Nalu Faria. Emakumeen Mundu Martxako nazioarteko komiteko kidea eta mugimenduak bere herrialdean daukan koordinazio taldeko partaide da. Urrian Bilbon egin den nazioarteko topaketaren baitan, Bolsonaro Brasilgo presidentziara heldu eta gutxira, berarekin hitz egiteko parada izan dugu.

iraunkorrango batean jarraitzea proposatu zuten, tartean Brasilek. Orduan hasi zen EMM mugimendu bezala egituratzen.

Brasilgo kideoi dagokigunez, mugimenduaren lehen eragin positiboa zera izan zen, neoliberalismoaren kontrako posizionamendua zeukan kaleko mugimendua sortzea ahalbidetu izana. Izan ere, garai hartan oso instituzionaliza-

tutako emakumeen mugimendua nagusitzen zen, NBEren agendari oso lotua, genero kontzeptua hutsaltzen zuena. Globalizazio neoliberalaren gaia eztabaidagai zen garai haietan, eta eratzen zebilen nazioarteko erresistentzian emakumeok posizionatu egin ginen. Horrek indarra, ikusgaitasuna eta beste hainbat mugimendurekin aliantzak eman zizkigun.

EMMk mugimendu bilakatzeko izan zuen prozesua oso interesgarria izan zen: bere agenda eraikitzea bilatu zuen, baita hainbat herrialdetan aldebereko ekintzak aurrera ateratzea ere. Handitzen, aliantzak sortzen eta analisisetan sakontzen joan zen heinean, hainbat gairen bueltan posizionatzen ere joan zen: ekologiaren, naturarekin harmoniatsua den bizitzaren, elikadura burujabetzaren eta sexualitate disidenteen alde agertu zen, eta kontrako jarrerazaldu arrazakeriaren eta kolonialismoaren aurrean.

Esan beharra dago mugimenduaren lehen urteetan ez zela kontsentsuz feminismo hitza ahotan hartzen, emakumeetaz eta hauen borroka hitz egiten zen. Feminismo hitza geureganatzea irabazia izan zen, esan daiteke lan handia izan genuela mugimendu feminista antikapitalistaren ideia oinarrian jarzteko.

Feminismo liberalaren olatua bizitzen ari gara. Feminismo antikapitalista arriskuan jarri du?

EMMk, momentu honetan, erronka bat jarri dio bere buruari: mugimenduaren alderdi herritar eta antikapitalista behin eta berriz azpimarratu eta indartzea. Ezin baitugu mugimendu antikapitalista batez hitz egin, honen subjektuen artean langile klaseko eta hiritik haragoko emakumeak ez baldin badaude. Klase ertaina deitzen zaion horretako emakumeak, profesionalak, unibertsitateko ikasleak, horiek ere geure artean nahi ditugu noski, klase ikuspegia barneratuta. Langile klaseko emakumeak mugimenduaren baitan hartzea garrantzitsua da, eta agendarekin, antolaketa moduekin eta mobilizatzeko erekin zerikusia dauka.

Erronkak etengabe ondoko galdera egitean datza: "Geure aniztasunean zerk batzen gaitu, zer izan gaitzek elkarrekin?". Subjektu feminista kolektibo bat nola eraiki hausnartu behar dugu, beste jendarte eredu bat sortzeko helburuarekin perspektiba feministadun posizio politiko zabala darabilena.

Nazioarteko mugimendua izanik, honen baitako herrialde bakoitzak bere berezitasunak ditu. Alabaina, aliantzetan eta herri boterean sinisten duzue.

Geure errealitateak ezberdinak diren arren, testuinguru eta egoerak komu-

» "Subjektu feminista kolektibo bat nola eraiki hausnartu behar dugu"

» "Olatu kontserbadore faxista ematen ari da, beldurra inposatu nahi duena. Hau, herrialde askotan, feminismoak eta LGBTI mugimenduak egindako aurrerapausoen erreakzioa ere bada"

nak dira. Azken finean kapitalak norbanakoen bizitzak antolatzen dihardu, lanaren prekarizazioaren eta bizitza zein naturaren merkantilizazioaren bidez. Lanaren prekarizazioa diodanean lurraldeen okupazioaz, behartutako desplazamenduez eta bizitzeko bitartekari-ri suntsiketaz ere banabil hizketan. Bizitzaren prekarizazio prozesu orokorra ari gara pairatzen, eta honek izaera heteropatriarkal eta arrazista nabarmena dauka.

Esplotazioaren eta zapalkuntzaren areagotze hau bizitza mantentzeko helburuarekin emakumeak lan gehiago egitera behartzeko modu bat ere bada, ordaindu gabeko emakumeen lanaz geroz eta gehiago aprobetxatzen den eredu baitugu indarrean dena. Ekonomia krisiarekin gehien sufritzen dutenak emakumeak dira. Hala bada, elkarri laguntzeko modu kolektiboak sortu behar ditugu. Merkatu kapitalistarekin zuzeneko harremanetik ateratzea ahalbide-tzen diguten bideetan pentsatu behar da, krisiari aurre egiteko moduak eraikitzen joan eta alternatibak eratzeko. Bertoko gauzak kontsumitzearen beharraz jendea kontzientziaztea lortu behar da, gure artean ekonomia solidarioa indartzen ari da, horrek ere zerikusia dauka sareak eta lotura sozialak ehuntzearekin. Erresistentzian egon arren, bertatik bizitza antolatzeko beste era batzuk sortzen joan gaitzek. Erronka

da, ikusi beharko da honi aurre egiteko gai garen.

Kapitalismoaren berregituraketari buruz hitz egin duzue topaketan, honek hartu dituen forma berriez eta hauen ondorio anitzez. Ondorio horietako zeintzuk bisitaratzen ditu Brasilgo egungo egoerak?

Brasilen eta Hego Ameriketako zenbait herrialdetan, baliabideak banatzen eta Estatua berreskuratzen zebiltzan gobernuak erasotzen ari dira. Ematen ari diren lan erreformak, adibidez, izatez ez dira erreformak, lan eskubideak indargabetzeko saiakerak baizik. Eskuratutako lan eskubide apurrak kentzen ari zaizkigu. Nabarmena da politika sozialen eta aspektu ekonomikoen kontrako erasoen arteko lotura, demokraziari erasoak dira, politika berberaren parte direnak.

Bestetik, Brasil langabezia tasa ikaragarriko herrialdea da. Hiri guztietan langabezia handia dago, baina Sao Paolon da nabarmena. Jendea kalean bizi da berriz, ia desagertua zegoen arazoa izanik. Kapitalismoak bizitza prekarizatu eta txiroak kriminalizatzen ditu, eta horrek ere genero dimentsioa dauka. Brasilen adibidez, gazteen genozidio eta espetxeratzea ematen da, eta horrek eragiten du ama diren emakume gazte askok bizitza bakarrik sostengatu behar izatea, bikotekidea kartzelan edo hilda dagoelako. Emakume gazte hauek beraien ama eta amamen laguntzarekin eusten diote bizitzari. Gizonak espetxera doaz, eta emakumeek bizitza sostengatzen dute.

Urte asko daramatzagu demokraziaren kontrako erasoak nola ematen diren ikusten. Munduko hainbat tokitan neoliberalismoak jada ez du jendea kontzientzitzen. Topaketan baloratu dugun moduan, olatu kontserbadore faxista ematen ari da, beldurra inposatu nahi duena. Hau, herrialde askotan, feminismoak eta LGBTI mugimenduak egindako aurrerapausoen erreakzioa ere bada.

Jair Bolsonaro Brasilgo presidentzia eskuratu berri du. Nola bizi duzu aldaketa politiko hau?

Ikaragarria da, urte hasieran inor gutxi imajinatu zezakeen halakorik gerta zitekeenik. Momentuz ez da posible datorkiguna aurreikustea. Badira lau urte oso era sistematikoan jendea kalera ateratzen dabilela, mugimendu eta

alderdien fronteak indartzen ari diren prozesuak martxan dira. Mugimendu sozialen batasuna eraikitzeko prozesu bat ere abian da, nahiago nuke hau mantenduko balitz. Posible da aurrerantzean erresistentzia handia egotea, jendeak ahalegina egingo du. Bestalde, Bolsonaro eta bere jarraitzaileen indarkeriaren erabilpena ikaragarria da. Ez dakigu nora eramango gaituen indarkeriazko egoera horrek.

Mugimendu bezala, datorkigunari aurre egin nahi badiogu, indarra eraikitze-ko estrategiak pentsatzeko gaitasuna izan beharko dugu. Momentu honetan nazioarteko borroken indartzeak ere berebiziko garrantzia daukala uste dut. Hego Ameriketako, Demokraziaren Aldeko eta Neoliberalismoaren Kontra Jardunaldi Kontinentalera eraikitzen dihardugu 2015etik, orduko hartan dagoeneko begiztatzen baikenuen testuinguruaren aldaketa eta neoliberalismoaren oldarraldia. Uste dut indar handia jarri beharko dugula horretan, bakarrik geratzea ekidin eta beste herrialdeetako babesa izateko.

Bolsonaro boterera iritsi den honetan, Brasilgo herriari geratzen zaion bide bakarra erresistentzia dela esan du Joao Pedro Stédilek (MST). Aspaldi hartutako bidea, ezta?

Guretzako bai. Mugimenduetako sektore batzuk harritu egin ditu ezkerreko hauspotzea lortu izanak, jendartearen panorama ikusita zaila baitzirudien halakorik gertatzea. Ezkerreko alderdi nagusia den Langileen Alderdiak (PT) eraso gehiegi pairatzen ditu, Lula da Silvaren atxiloteta kasu. Hala ere, gertakari horren aurrean erakutsi genuen erresistentzia eta elkartasunak, eta Lula berak emandako erantzunak, egoera zertxobait konpondu eta jendea PT alderdia defendatzera animatu zuen. Aurretik, desengainua eta desilusioa ziren nagusi. Gauden lekura iristea harriagarria izan da. Uste dut krisia eta langabezia areagotzen dabilen honetan jende gehiago batuko dela erresistentziara.

Bolsonaroren diskurtso guztia doikuntza politiketan oinarritzen da, ez dauka politika populistak egiteko aukerarik, militarrek diktaturak irauten ari diren bezala. Militarrek herrialdeko zorpetu zuten, industrializazioa handitu zuten eta nolabaiteko banaketa bat egon



"Mulheren Unidas Contra Bolsonaro" lelopean Natal hirian (Brasil) egindako mobilizazioa.

zen. Horregatik diktaturak ez zuen opozitiorik izan hainbeste urtean, herritarrek beren bizimoduetan hobekuntzak ematen ari zirela sentitzen baitzuten. Zorpetzeak eragin zuen sentipena izan zen, 1981 ostean lehen aldiz FMira bideratuko gintuena. Bolsonarok, baina, ez dauka abagunerik politika populistak erabiltzeko.

Martxoaren 14an, Marielle Franco politikari eta ekintzailea hil zuten Rio de Janeiro. Bolsonaro agintean egoteak egun lider sozialek bizi duten arrisku egoera areagotuko duen beldur zarete?

Lider sozialek Hego Ameriketako bizi duten egoera oso larria da. Brasilen betidanik hil dituzte landa eremuko liderak, eta hilketok hirira heltzen ari dira. Marielleren hilketak da adierazgarri. Erasoak areagotzen ari dira Brasilen. Kontu kezkarria.

Beldur sentipena eta militantziari lotutako segurtasuna dira maneiatzen ikasi beharko ditugun aspektuak. Ni bizi naizen tokian, abian dira segurtasunaren gainean eztabaidatzeko bilkurak.

NBERen 2015eko Biolentziaren Mapak, emakumeen kontrako indarkeriari dagozkionez, bosgarren postuan kokatzen du Brasil. Datuak izugarriak dira.

Brasil herrialde biolentoa da orokorrean, emakume eta gay-ekin are gehiago. Feminizidio kopurua oso altua da, urtean 5.000 emakume hiltzen dituzte Brasilen, hamahiru eguneko, bi orduan behin bat. Lau segunduro, emakume bat erasotzen dute.

Guk argi daukagu indarkeria marxista artatzeko politikak urriak direla gure herrialdean. Gainera, hauek zigorren oso oinarrituta daude, eta indarkeria berriz gertatzea eragozteko gaitasun oso gutxi daukate. Nik uste emakumeon mugimenduko partaideontzat erronka bat dela indarkeriari aurre egiteko beste modu batzuk pentsatzea, irtenbidea bakarrik komisaldegian aurkitu ez dezagun. Sareak eta auto-antolakuntzarako modu berriak pentsatu beharko genituzke, datuek adierazten dutenez emakumeak antolatuta dauden auzoetan indarkeria jaitsi egiten baita. ■